

## **EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE SUPERMERTATU BAT INAUGURATU DU NAFARROAN, BERRIOZARREN**

- Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei fabrikatzaileen markekin, kalitatezko marka propio batekin eta freskoetan duen lidergoarekin
- Saltokian sei langile ari dira
- EROSKI k 52 frankizia inauguratu ditu 2020an, eta 7,8 milioi euroko inbertsioa egin du guztira; horrekin, 312 lanpostu sorrarazi dira
- Kooperatibak eusten dio CEAJErekin duen lankidetzaz hitzarmenari, eta beste hitzarmen bat egin du ATArekin, enpresaburu gazteen ekintzailatza lagundu eta sustatzeko

**Berriozar (Nafarroa), 2021eko uztailaren 15a.-** [EROSKI](#)k supermerkatu berria inauguratu du Saharar Errepublikaren plazako 15. eta 16. zenbakien artean. EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta, tratu pertsonalizatuagoa eman ez ezik, apustu egingo du tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde; horretaz gainera, elikadura osasungarria sustatuko du, eta eguneroko erosketetan aurrezteko modu berriak eskainiko ditu. Saltokiak sei langile izango ditu

Supermerkatuak produktu sorta zabala eskainiko du, ekoizle liderren markakoa, marka propioa eta tokiko ekoizleena, eta 250 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiaren sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak, era berean, ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriak behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 209.000 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak Nafarroan, eta EROSKI Cluben abantailak ikusten ari dira dagoeneko.

EROSKI k 52 frankizia inauguratu ditu 2020an. Guztira, 7,8 milioi euro inbertitu ditu, eta 312 lanpostu sorrarazi. EROSKI k aurreko urteetako irekieren erritmoari

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

eusten dio, eta, sei urte honetan, 340 inaugurazio egin ditu; hortaz, gaur egun, frankizia erako 500 supermerkatu baino gehiago ditu. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2021eko ekitaldian, kooperatibaren asmoa da 70 bat frankizia baino gehiago inauguratzea.

EROSKIren frankizia sareko supermerkatuen salmentak %15 handitu ziren 2020. urtean; hortaz, azken urteetako hazkundera eta zabalkundera sendotu egin da. *"Merkatutik bestelako frankizia eredu bat eskaintzen dugu; izan ere, geure izaera kooperatiboak (geure bazkide langileekin) ekintzaileen premietatik hurbil kokatzen gaitu. Eredu komertzial erakargarri bati esker lortu dugu haztea; izan ere, COVID-19ak eragin duen osasun krisian sektoreko batez besteak baino hobeto bete ditugu kontsumitzaileen beharrak"*, nabarmendu du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinezek.

### **Lankidetzaren hitzarmenak**

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetzaren hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzailetza lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da, Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkartearen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKI autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

### **Merkataritza Frankiziarik Onenaren Saria**

Orain berriki, EROSKIrena iruditu zaie kontsumitzaileei proposamenik onena *Frankizien* kategorian, [2020-2021eko Merkataritza Sariaren hamargarren ekitaldian](#); Espainiako kontsumitzaileen sariketarik handiena da, eta *retail*-aren sektorean egiten den merkatu azterketarik handienetako bat.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)